

eingo **na**!

> 2011ko ekaina

5.

2011ko martxoaren 8a, argazkietan
Deusezta ditzagun aurreritziak!
Zer egin sexu-eraso baten aurrean
«Aldiro ederrak gara» bertsoak



EMAKUMEAK POLITIKAGINTZAN



BFA
DFB
Euzko Legeburu Batzarreko Udala
Deputazio Foral de Bizkaia
BFAk diruz lagunduta

HEMEN DAGO UDA!

Udarekin batera, Egingonau aldizkariaren 5. zenbakia kaleratu dugu berdintasun sailean. Oraingo honetan ere aukera berdintasuna helburu duten hainbat gai, artikuluren inguruko informazioa eskaintzea da asmoa.

Hurrengo orrialdeetan, Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan egindako ekintzen argazkiak aurkituko dituzue, eraso sexista baten aurrean hartu beharreko neurrien gaineko informazioa, askatasun sexualaren inguruko artikulua bat eta 2007-2011 legealdian jardun duten emakume zinegotziei eginiko elkarriketa, besteak beste.

Oraindik uda osoa aurretik dugun arren, gogoratu irailetik aurrera antolatuko ditugun ekintza eta ikastaroe-tan parte hartzeko aukera edukiko duzuela. Bestalde, aipatzekoa da indar handiz datozela aurten azaroaren 25aren inguruan egiten diren Beldur Barik lehiaketa eta jaialdia.

Eskuarteetan daukazuen informazioa interesgarria eta baliagarria izango zaizuelakoan, agur bero bat.

Pili Sanz Berasaluze
Berdintasun Arloko Zinegotzia

¡YA LLEGA EL VERANO!

Casi junto con el comienzo del verano hemos publicado el 5º ENGOXONAU desde el área de igualdad. Como en las anteriores ediciones, nuestro propósito es ofrecer información sobre diferentes temas y artículos relacionados con la igualdad de oportunidades.

En las próximas páginas podréis encontrar fotos de las actividades que se hicieron entorno al Día Internacional de la Mujer, información sobre las diferentes medidas que podemos tomar ante una agresión sexista, un artículo entorno a la libertad sexual y una entrevista realizada a las concejales que han participado en la legislación 2007-2011 entre otros temas.

Aunque todavía tenemos todo el verano por delante, recordad que a partir de septiembre podréis participar en las diferentes actividades y talleres. Por otro lado, debemos mencionar que este año viene con fuerza el festival y el concurso Beldur Barik que se celebrarán entorno al 25 de noviembre.

Espero que la información que tenéis entre manos sea de vuestro interés.
Un saludo.

Pili Sanz Berasaluze
Concejala del Área de Igualdad

n!

2011ko
MARTXOAK 8

Berrizko Udaleko Berdintasun Sailak eskerrak eman nahi dizkizue Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan antolatutako ekintzetan parte hartu zenuten emakume zein gizonezko guztioi. Hurrengo urtean ere, Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan ekintzak antolatzen jarraituko dugu, eta parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Ez ahaztu emakumeon eskubideen aldeko borroka ez dela egun zehatzetara mugatu behar, egunero lan egin behar dugu aukera berdintasunaren alde.

II. AÑEKETAN

Irabazleak Ane Oiarzun Navarro, Cristina Amezua Gariagoitia, Nerea Aranburu Garcia eta Ainhoa Amari-lla Hirusta izan ziren. Parte-hartzaileak gazteena Malen Berasaluze Mandaluniz izan zen; eta nagusiena, Aurora Diez. Irabazleei zein partaide gazteenari eta nagusienari txapela eta liburuak oparitu zitzaizkien.

KALEJIRA

Giro bikaina egon zen kalejiran. Aldarrikapena eta jaia uztartu ziren Zugarramurdiko sorginen ehiza salatuz.



Desde el Departamento de Igualdad del Municipio de Berriz queremos agradecer a todas las mujeres y hombres la participación en las diferentes actividades que se organizaron en torno al 8 de marzo, Día Internacional de la Mujer.

El año que viene seguiremos organizando actividades y os invitamos a participar en ellas.

No olvidemos que la lucha a favor de los derechos de las mujeres no puede centrarse en un solo día, es necesario trabajar todos días a favor de la igualdad de oportunidades.



II. Añeketan parte hartu duzuenoi, bai korrika, bai bidegurutzeak zaintzen... ESKERRIK ASKO GUZTIOI !!!



Martxoak 8
EMAKUMEON EGUNA



Alboko argazkietan, goian, II. Añeketaneko lau irabazleak (Ane Oiarzun Navarro, Cristina Amezcua Gariagoitia, Nerea Aranburu Garcia eta Ainhoa Amarilla Hirusta). Behean, ezkerrean, partaide nagusia (Aurora Diez), eta eskuman, gazteena (Malen Berasaluze Mandaluniz).



DEUSEZTA DITZAGUN AURREIRITZI ISIL ETA SOTILAK

Gay, lesbiana eta transexualenganako aurreiritziak deuseztatzen ahalegindu ondoren, 2011n Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualak askatasunez eta ikusgaitasunez gozatzeko aukera duten herrialdeen barruan daude. Arrakasta, ordea, ez zaio soilik giza taldeek eta norbanakoek egindako ahalegin handiari zor, baita gizarte osoari, gizarteak egin baitu aurrera, pixkanaka, aukera nahiz orientazio homosexual zein lesbikoa zuten edo transexualak ziren pertsonen ezarri izan zaien diskriminazio onartezina amaitzeko bidean, eta horrenbestez, **lerro lodiko bereizkeriak**, gure lege testuetan islatu izan direnak, alegia, suntsitu ditugula esateko moduan gara.

Berdintasun formalak lortu badugu ere, bai eta gay, lesbiko, transgendero eta transexualari buruzko ideien eremuan jendarte aurrerapen garrantzitsuak erdietsi ere, gaur egun, kezkatzekoa dena zera da: **JENDARTEAK LGTB KOLEKTIBOAN ONARTZEN DUEN ARREN, BALDINTZAK ETA "BAINAK" JARRIZ EGITEN DUELA**. Aniztasunarekiko tolerantzia apala baino ez dela lortu dakusagu, izan ere, ez baita berdintasuna bete-betean onartzen, eta tratua desberdina

antzean daiteke hainbat instituzioetako alorretan, baita, eguneroko elkarbizitzan ere.

2011ko E-28 honetan ERRESPETU hitzak zer esan nahi duen hausnartzeko deia egiten diogu jendarteari.

ALDARTEren ustez, elkarki errespetua erakustea sexu aniztasuna eta genero identitatea bizitzaren gune eta alor guztietan adierazi ahal izatea da, bai eta herritar guztiak ondorio guztietarako berdinak izatea ere, gure sexu orientazioa edo genero identitatea gorabehera.

Hori horrela, errespetuaren alderantzizkoa da baldintzak eta "bainak" jartzea, ala aldamenekoa den bezalakoa agertu izanagatik, minduta sentitzea. Lesbiana, gayak, transgenderoak eta transexualak aintzakotzat hartzearen alderantzizkoa da inork jendaurrean ikus ez ditzan ezkutaraztea eta intimitate ilunenera zokoratzea, heterosexualei sekula exijituko ez litzaiekeen apaltasunera behartuz. Errespetatzearen aurkakoa da eskubideak urri diezazkietela eskatzen jarraitzea.

Gaur egun, salbuespenak salbu, diskriminazioa ez da lehengo bortizkeriaz adierazten; marjinazioetako asko ez dira agerikoak, onarpen itxura duten bereizkeriak dira, eta ez daukate kalean emandako jipoiaren basakeria eta agerikotasuna edo ikasgeletako buylling homofobiko eta transfobikoaren krudelkeria.

Aurreiritzi ikusezin horiek guztiak ere zailago bihurtzen dute ALDARTE gisako erakundeen lana. Oraindik ere, era guztietako diskriminazioaren aurka borrokatzen jarraitu behar dugu, eta bereziki azaleratu eta agerian jarri itxura isil eta sotilez mozorrotzen den diskriminazioa. Helburua LGTB kolektiboenganako aurreiritziak ezabatzea da eta, bide horretan, gero eta anitzagoa, irekiagoa eta integratzaileagoa den jendarte batean bizi ahal izateko oztopoak aurkitu behar ditugu, inor baldintzarik jar ez diezaion gay, lesbiana eta transexual izateari.

Horregatik, lehentasuna izango duten jarduera lerroak ez ezik, jendarte eragilean inplikazioa ere eskatzen dugu, ez baita bestela, jendarte eremu guztietan

ELIMINAR LOS PREJUICIOS SILENCIOSOS Y SUTILES

Después de tres décadas trabajando por eliminar los prejuicios hacia gays, lesbianas y transexuales en este año 2011 podemos afirmar que nuestro contexto social forma parte del grupo de países en los que las personas LGTB disfrutan de espacios de libertad y de visibilidad, inexistentes en otros lugares del mundo. La responsabilidad de tal éxito no sólo se debe al gran trabajo realizado por los colectivos sociales y personas individuales, sino que también hay que atribuirselo a una sociedad que ha ido en su conjunto, poco a poco, apostando por terminar con unas discriminaciones inadmisibles que se aplicaban a las personas por la única razón de tener una opción u orientación homosexual, lesbica o ser transexual. Podemos decir que hemos acabado con las discriminaciones de trazo grueso, las que se reflejaban en nuestros textos legales.

Una vez conseguida la igualdad formal y obtenidos importantes progresos sociales en el terreno de las ideas respecto al hecho gay, lesbico, transgénero y transexual, la preocupación que hoy tenemos en ALDARTE es que LA SOCIEDAD ACEPTA AL COLECTIVO LGTB CON CONDICIONES Y... CON "PEROS". Observamos que solamente se alcanzado una escasa tolerancia hacia la diversidad; no existe una aceptación en el respeto e igualdad, y se detecta un trato desigual en bastantes ámbitos institucionales y en el plano de la convivencia diaria.

Este 28-J de 2011 llamamos a la sociedad a realizar una reflexión sobre lo que significa el término RESPETAR.

Para ALDARTE practicar el respeto mutuo es entender que la diversidad sexual y la identidad de género se tienen que manifestar en todos los espacios y ámbitos de la vida, y que todos los ciudadanos y todas las ciudadanas somos iguales a todos los efectos, sea cual sea nuestra orientación sexual o identidad de género.

Por tanto, respetar no es poner condiciones ni "peros" o sentirse molesto/a porque quien está a tu lado se manifiesta tal y como es. Respetar a lesbianas, gays, personas transgénero y transexuales no es intentar que se escondan para que no se les vea públicamente, ni relegarlas a la más estricta intimidad, exigiéndoles una discreción que no se exige a las personas heterosexuales. Respetar no es seguir solicitando que se recorten sus derechos. Las discriminaciones hoy en día no se manifiestan (salvo excepciones) con la brutalidad de antaño. Nos encontramos con marginaciones que no son explícitas, que tienen la apariencia de aceptación y que no adoptan la claridad y la bestialidad de una paliza en la calle o la crudeza del buylling homofóbico y transfóbico en las aulas.

En la actualidad, las discriminaciones tienen, por lo general, diversos grados de sutileza: desde campañas o anuncios con un marcado toque heterosexual, hasta comentarios burdos y cotidianos sobre homosexualidad que se realizan en los Mass media o los obstáculos con los que se pueden encontrar madres lesbianas o transexuales por la reiterada inaplicación de leyes que regulan sus derechos en juzgados y registros civiles.

Estos prejuicios invisibles hacen más compleja la labor que realizamos las organizaciones como ALDARTE. Sigue siendo necesario trabajar contra todo tipo de discriminaciones, y especialmente desvelar aquellas que adoptan formas silenciosas y sutiles. El objetivo es la desaparición definitiva del prejuicio hacia el colectivo LGTB, descubriendo las trabas que siguen existiendo para vivir en una sociedad cada día más plural, más abierta e integradora que deje de poner condiciones a la existencia de gays, lesbianas y transexuales.

Por ello demandamos líneas de actuación prioritarias para lograr la igualdad real y la aceptación del colectivo en todos los ámbitos sociales y la implicación de los diferentes agentes sociales. Así pues es necesario:

- 1) Incorporar en el Curriculum Escolar una educación en la diversidad sexual e identidad de género.
- 2) Promover campañas de pedagogía social y de sensibilización en todos los ámbitos sociales.
- 3) Incorporar en todas las estructuras institucionales la perspectiva de la "diversidad sexual e identidad de género"
- 4) Garantizar la atención directa al colectivo LGTB y sus allegados, para seguir promoviendo el bienestar, la aceptación personal y una buena socialización.

Hay que seguir avanzando hacia una sexualidad cada día más diversa e integradora. Este es el reto que nos queda.

ALDARTE

Centro de atención a gays, lesbianas y transexuales

EMAKUMEONTZAKO LAGUNTZA ETA HARRERA TALDEA

GRUPO DE ACOGIDA Y
APOYO PARA CHICAS



Nori zuzenduta?

Orientazio eta identitate kasuetan (zalantzak, beldurrak, nola adierazi ez dakigunean edo indarkeria kasuetan besteak beste...) gatazka pertsonala bizi duen emakume orori. Egoera horretan dagoen beste emakumerik ezagutu ez, eta bakarrik sentitzen direnentzat ere.

Zer aurkituko duzu bertan?

Izan ditzakegun dudedekin arduratuta bazaude askatasun eta lasaitasun osoarekin hitz egiteko gune berezi bat. Gainontzeko emakumeekin gatazka egoera gainditzeko esperientziak elkartrukatu. Autoestimua, komunikazioa eta norbere trebetasunak bultzatu nahi dira, jolas talde dinamika zein ariketa praktikoen bidez, emakume oro hazi eta hezituz.

Parte hartu nahi izanez gero, deitu Aldartera! ANIMATU!

ASTELEHENERO 19:30ean, ALDARTEN

benetako aukera berdintasunik eta kolektiboaren onarpenik izango. Horrela bada, ezinbestekoa ikusten dugu:

1. **Eskola Curriculumean** sexu aniztasuna eta genero identitatea kontuan hartuko dituen heziketa sartzea.
2. **Jendarte alor guztietara pedagogia soziala** eta sentsibilizazioa kanpainak zabaltzea.
3. Instituzioen egitura guztietan «**sexu aniztasunaren eta genero identitatearen ikuspegia**» txertatzea.
4. **LGTB kolektiboari** eta haien hurbilekoei arreta zuzena bermatzea, haien ongizatea, norberaren onarpena eta behar bezalako jendarteratzea lortzeko.

Gero eta sexualitate anitzago eta integraztaileagoa lortzeko bidea egin behar dugu. Hori, aurrean dugun erronka.

ALDARTE,

Gay, lesbiana eta transexualen arretarako Zentroa

A S K A T A S U N S E X U A L A

Zer egin sexu-eraso baten aurrean?

Uda sasoiarekin batera, Euskal Herriko hainbat herritako jaiak datoz, eta jaiekin batera, parranda giroa, gaua... Hainbat faktorek ingurune apropos bihurtzen dituzte jaiak emakumeak erasotzeko.

Hori horrela, emakumeok adi egon behar dugu eta gure burua babesteko sistema indartzeari ekin behar diogu. Gainera, geure burua babesteko sistema indartzeak arriskuak konturatzen lagunduko digu.

Bestalde, Emakumeok argi eduki behar dugu eraso bat gertatzen dela erasotzailearen erruz. Mutilek erabakitzen dutenean indarkeriazko jokabidea erabiltzea, eurek daukate erabaki horren ardura, eta aitzakiek ez dute balio: "neskak honelako hau eman zidan aditzera..." "Neskak begiratzen zidan moduagatik..." "Neska era honetara edo horretara zebilen jantzi-ta..."

Sexu-erasoak pertsona baten borondatearen aurka ezarritako sexu-portaerak dira, eta modu askotakoak izan daitezke: exhibizionismoa, hitz lizunak, zirriak, laztanak, sexu-jazarpena lantokian, bortxaketa eta abar.

Askotan, sexu-erasoak pertsona ezagunengandik etortzen dira. Gogorik ez badaukazu, esan ezetz. Ez duzu zertan jasan zeure borondatearen aurkako sexu-jokaerarik.

Sexu-erasoek, kalte fisikoez gain, ondorio psikologiko larriak eragin ohi dituzte (herstura, amesgaiztoak, depresioa, sexu-grina gutxitzea,...). Ondorio horiek asko luzatzen dira erasoaren ondoren, eta, normalean, laguntza psikologiko espezializatua eskatzen dute gaingitu ahal izateko. Laguntza hori, nahi izanez gero, doan eskura dezakezu gizarte-zerbitzuen bidez.

JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Berehalako eraso baten aurrean, ahal baduzu, deitu polizia babes zaitzan (Ertzaintza: 112).

Ez garbitu gorputza eta ez aldatu arropa. Aho bidezko eraso bat jasan baduzu, saiatu ez jaten eta edaten; izan ere, erasotzailea identifikatzeko eta kondenatzeko funtsezko frogak ezaba ditzakezu.

2. Konta iezaiozu konfiantzako pertsona bati eta eskatu laguntza.

3. Joan zaitez ospitalera, hurbilen duzunera. Atzeritarra bazara eta oraindik osasun-txartelik ez badaukazu, berdin hartuko zaituzte.

4. Nahiago baduzu, ezer baino lehen poliziara (Ertzaintza: 112) edo guardiako epaitegira joan edo deitu dagokizun ospitalera edo zerbitzu klinikora, eta lagunduko dizute. Salaketa jarri aurretik, eska ezazu harremanetan jar zaitzatela laguntza juridikoko 24 orduko doako zerbitzuarekin (902 103 908).

5. Ikusmeneko, entzumenero edo mugikortasuneko arazoren bat edo beste ezintasunen bat badaukazu, jakinarazi arazo hori (telefonoz, faxez, e-mailez, mezu laburrez...) joan nahi duzun zerbitzuari, joan-etorrian lagun diezazuten, zurekin joan daitezen, zeinuen hizkuntzako interprete bat jarri diezazuten etab.

6. Gainera, Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeentzat telefono bidez informazioa emateko zerbitzua dago. Doakoa da, eta telefono bidezko laguntza eskaintzen du eguneko 24 orduetan: 900 840 111 edo 016.

**EMAKUMEON KONTRAKO INDARKERIAREKIN BUKATZEA
DENON ESKU DAGO, ETA JARRERA AKTIBOIA AGERTU BEHAR DUGU!!!
ERRUDUNA ERASOTZAILEA DA, EZ NESKA!!!
ERASOTZAILEAK KANPORA!!!**

2 007-2011 legealdian Berrizko Udalean politikagintzan parte hartu duten emakumeekin elkarrizketa izan dugu. Argazkietan, ezkerretik hasita: Karmen Amezua Urzelai, Bego Navarro Bragado, Pili Sanz Berasaluze, Puri Pérez Gallego eta Aizpea Macarro Barrainkua. Eurok izan dira iragan den legealdian politikagintzan gogotsu aritu diren emakumeak.



Zerk bultzatu zintuen politikan parte hartzera?

Karmen: Pertsona moduan eta batez ere emakume moduan herriaren etorkizunearan parte-hartze zuzena izatearren hasi nintzen politikan.

Bego: Aukera bat iruditu zitzaidan Berriz eta berriztarren bizi kalitatea hobetzen laguntzeko.

Pili: Politikan parte hartzeko aukerea emon eusteen gaur egun nire partiduko kideak izan direzenak. Ideia aztertu eta pausoa aurrera eroatea erabaki neban. Politika mundua ez zen ezezagun-ezezaguna niretzat, kanpotik ezagutzen neban, ama makina bat urteetan izan zan-eta kontzejala Berrizen.

Puri: Gaztetatik ez dot jakin geldirik egoten; horrek bultzatu nau honetan parte hartzera. Erronkak gustatzen zaizkit: zerbait debekatzen badidate, han noa ni.

Aizpea: Politikan parte hartzea ez da une zehatz batean hartutako erabaki bat izan. Beti izan dut modu batean edo bestean politikarekin nolabaiteko lotura, eta lotura hau modu natural batean eman da. Baina egia da arrazoi on asko daudela politikan parte hartzen animatu nautenak.

Zelan uste duzu eragin ahal izan duela zu emakumea izateak zinegotzi modura izan dituzun zereginetan?

Karmen: Politika betidanik gizonen esparrua izan da, baina zorionez emakumeok gero eta presentzia handiagoa daukagu. Emakumeok erakutsi dugu gai gairela udalgintzan aritzeko, eta, udalgintzan jarduteko beste modu batzuk ere badaudela.

Bego: Emakume naizen heinean, gauza asko gure terrenora eramaten ahalegin-dun naiz Berrizko emakumeak udaleko arloetan (kultura, gizarte gaiak...) parte hartzera animatzeko.

Pili: Danon artean lortu dogu Udalean egindako ekintzetan, ordenantzetan eta bestelakoetan genero ikuspuntua edukitzea. Berdintasun teknikari baten (Naiara Garate) laguntza izan dogu horretarako, eta alkarregaz egindako lau urte honeetako beharra eskertu nahi deusat.

Puri: Ez dut uste eraginik izan duenik, zinegotzigoak berdin funtzionatzen du emakume zein gizonezko izan.

Aizpea: Emakume izateak ez du modu zuzen batean zinegotzi zereginetan eraginik, baina emakumeok bizitza politikoan modu aktiboan parte hartzeak berebiziko garrantzia duela uste dut. Guztion ardura eta betebeharra izan behar da parte hartze hau ziurtatzea eta bultzatzea.

11 zinegotzitatik 5 emakumeak izan dira azken legealdian. Lan arlo diferenteei begiratura, gizarte-zerbitzuen batzordean emakumeak izan dira gehiago.

MUJERES EN POLÍTICA

Hemos tenido una entrevista con las mujeres que han participado en la política en el ayuntamiento de Berriz en la pasada legislatura 2007-2011. Karmen Amezua Urcelai, Bego Navarro Bragado, Pili Sanz Berasaluze Puri Pérez Gallego y Aizpea Macarro Barrainkua (de izquierda a derecha en las fotos superiores) son las mujeres que han participado con mucho entusiasmo en la anterior legislatura.

¿Qué te impulsó a participar en la política?

Karmen: Para tener como persona y sobre todo como mujer una participación directa en el futuro de Berriz.

Bego: Me pareció una oportunidad para poder participar en la mejora de Berriz y la calidad de vida de los y las berriztarraz.

Pili: Los y las que ahora son socios y socias de mi partido me dieron la oportunidad de participar en la política. Estudié la idea y decidí dar un paso adelante. El mundo de la política no era nuevo para mí, lo conocía desde fuera ya que mi madre ha sido concejala en Berriz durante varios años.

Puri: Desde joven he sido una persona inquieta y es lo que me ha hecho moverme. Me gustan los retos y si me prohíben algo, allí voy.

Aizpea: Participar en la política no ha sido una decisión tomada improvisadamente, desde siempre he participado de un modo u otro en la política. Pero es verdad que hay muchas razones por las que decidí participar en esto.

¿Como crees que ha influido el ser mujer en los quehaceres como concejala?

Karmen: La política siempre ha sido un ámbito mayoritariamente de hombres, pero afortunadamente las mujeres tenemos cada vez más presen-

cia. Las mujeres hemos demostrado que somos capaces de participar en la política, y que es posible hacerlo de otros modos.

Bego: Como mujer que soy intentar llevar (entre comillas) muchas cosas a nuestro terreno para así animar a las mujeres de Berriz a participar en los diferentes ámbitos municipales (culturales, sociales...)

Pili: Entre todas hemos conseguido que casi la mayoría de los actos / ordenanzas / pliegos y demás que se realizan en el ayuntamiento vayan enfocados con una perspectiva de género. Hemos contado con apoyo de una técnica de igualdad (Naiara Garate) a la que debo agradecer el trabajo realizado durante estos cuatro años en los que hemos trabajado juntas.

Puri: No creo que haya influido, la concejalía funciona igual siendo mujer o hombre.

Aizpea: El ser mujer no ha influenciado directa-



Hirigintzan, aldiz, gutxien. Zer azalpen emango zenioke horri?

Karmen: Nahiz eta emakumeon partehartzea politikan gero eta handiagoa izan, oraindik ere eremu batzuetan gizonezkoek emakumezkoek baino presentzia gehiago daukate. Emakumea laguntza eta zaintzarekin lotu izan da, eta hori oraindik aldatzeko dago.

Bego: 11 zinegotzi eta alkatea gara denetara, bost batzorde egon dira eta horietako hiruren buru emakumeak izan gara. Bukatzeaz dagoen legealdi honetan, nik neuk hirigintzako batzordean parte hartzen nuen, baina batzordeak berrantolatzean utzi nuen. Oso gustura egon nintzen hirigintzako batzordean. Ez dut uste arazoik berezirik dagoenik hirigintzako batzordean emakume gutxiago egoteko, edo behizat hori sinistu nahi dut.

Pili: Arrazoa da bost emakumetik hiru beste batzorde batzuetako buru gara, (euskera, kultura, ongizatea, osasuna, kooperazioa, immigrazioa, bardintasuna eta kirola). Arloen banaketea egiterakoan, ez zan egon inolako diskriminaziorik, geuk aukeratu genduzan. Hirigintza arloan egon nahi izan bagendu, ez gendun inolako arazorik izango, hau da, arlo horretan gure parte-hartzea ez zan mugatuko.

Puri: Uste dut gizonezkoak direla askotan gai batzuen aurrean atzera egiten dutenak. Ikusiko dugu zer gertatzen den hurrengo legealdian.

Aizpea: Datuek azaltzen dutena bizi dugun errealitatearen isla dira. Gaur egun oraindik gizon eta emakumeen artean eta maila desberdinetan ematen den desoreka oso argia da. Adierazgarria da, politikoki ere emakumearen betebeharrak arlo zehatz batzuekin lotzen direla.

Emakume zinegotzia izateagatik bizi izan duzu inoiz aipatzeko moduko ezer? (bazterketa, komentario, diskriminazio negatibo zein positiborik...)

Karmen: Pertsonalki ez dut horrelakorik bizi, baina emakumeok politikarako balio dugula demostratu behar dugu, eta gizonak, aldiz, ez dute hori demostratu beharrik, aurreuposatu egiten da horretarako balio dutela.

Bego: Ez dut gogoratzen.

Pili: Ez dot inongo bazterketarik sentidu ezta komentario desatseginik entzun emakumea izateagatik. Berriz politikagintzan emakumeok beti izan dogu-eta presentzia.

Puri: Izan badut, ez diot eman garrantzirik.

mente en los quehaceres como concejala, pero creo que es de gran importancia que las mujeres participemos activamente en la política. Es deber de todas y todos garantizar e impulsar esta participación.

De 11 concejalías, 5 han sido ocupadas por mujeres. Mirando a las diferentes áreas podemos observar que la mayoría de las mujeres se encuentran en el consejo de servicios sociales. En urbanismo en cambio, sois minoría. ¿Cuál crees que es la razón?

Karmen: Aunque la participación de las mujeres en la política es cada vez mayor, todavía los hombres tienen más presencia que las mujeres. Las mujeres han estado ligadas con la ayuda y los cuidados, y eso todavía esta por cambiar.

Bego: Yo diría que somos 11 concejales y concejalas y alcalde, pero 5 concejalías (comisiones) de las cuales 3 son precedidas por mujeres y 2 por hombres. Al comienzo de esta legislatura que está concluyendo, sí formaba parte de la comisión de urba-

nismo, la cual dejé por ajuste de otras comisiones y en la cual trabajé muy a gusto. No pienso que haya una razón especial por la cual la mujer en comisión de urbanismo esté en minoría o quizás quiero creer que no.

Pili: La razón está en que de esas 5 mujeres, 3 ocupamos presidencias en otras áreas (euskara, cultura, bienestar social, sanidad, cooperación, inmigración, igualdad, y deportes). No hubo ninguna discriminación en cuanto a reparto de áreas, las elegimos nosotras. De haber querido estar en el área urbanismo, no hubiésemos tenido el mínimo problema, es decir, no se nos hubiera limitado la participación en dicha área.

Puri: Creo que tal vez son ellos son que se echan para atrás en ciertos temas, veremos que ocurre en la próxima legislatura.

Aizpea: Lo que dan a conocer los datos ese el reflejo de la realidad. Hoy en día todavía, la falta de igualdad de oportunidades que hay entre mujeres y

hombres es muy clara. Es significativo que políticamente también unas funciones concretas se asocian a las mujeres.


¿Has vivido alguna experiencia particular por ser mujer y concejala durante estos cuatro años? (rechazo, comentarios, discriminación positiva o negativa...)

Karmen: Personalmente no he vivido nada así, aunque las mujeres tenemos que demostrar que valemos para la política mientras que los hombres no, se presupone que valen para ello.

Bego: No que recuerde.

Pili: No me he sentido rechazada ni he oído comentarios de mal gusto por ser mujer. En la política las mujeres siempre hemos tenido presencia en Berriz.

Puri: Si la he tenido no le he dado importancia.



aldirio ederrak gara

DOINUA: "Aita izena"
EGILEA: Miren Amuriza

2011ko apirilaren 17a, Argia aldizkariko 24.orr.
Bilgune Feministako web gunetik hartutakoa.

I
Andere askoren asteburuan ezinbesteko bi pieza: larunbat goizez pelukeria eta igandean meza. Neuk ere ile apaindegian hartu dudanez sorpresa, nahiago nuke edozeinentzat bertsoz azaldu baneza, nola bihurtzen dituzten gure amonatroak printzesa.

II
Zapaturo lez bakar-bakarrik etorri da Margarita, atzamarrean eraztuntxo bi ta jaka beltzez jantzita. Gaztetan oso ederra zela xuxurlatu du irrika, baina nolatan oroituko du oraindik dela polita? Ispilu aurrean azkenengoz noiz jarri zen ere ez daki-ta...

III
Fruta dendako poltsa birekin sartu da amama Mari, bere txikian txorien gisa hasi da kontu kontari, kartera ireki ta atereaz bertatik paper ugari, harro esan du "hauxek dira Andoni eta Izadi", ta irri eginez muxu eman dio biloben argazkiari.

IV
Bere alabari eskua emanda ailegatu da Bittori, kontatu ditu baserriari buruzko mila istori: nola ardien bila joan ta ia-ia zen erori, nola kereizak jaten ikusi dituen hiru-lau txori... Baina bakarrik sentitzen dela ez dio esan inori.

V
Margaritari permanentea egin diote aurrena, Mariri adatsa orraztu ondoren artez jantzi diadema, Bittorirentzat ezpain larrosak eta eskutako krema... Halaxe eskaini dute hirurek irribarre gozoena; ez al da horixe emakume bat gehien edertzen duena?

VI
Udaberria berdez jantzia, urdinez bustia udara, udazkenaren horia elurrak negutzen du mara-mara. Emakume bat lau urtaroak bezala aldakorra da; gaztetan gori, geroan zuri iletik begietara, nahiz kolorea aldatzen zaigun aldirio ederrak gara.

A G E N D A !

- Ekainak 28 sexu-askatasunaren eguna
28 junio, día de la libertad sexual.
- San Pedro eta Santa Isabel jaiak
(ekainak 29- uztailak 2)

"EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA" 4. ARGAZKI LEHIAKETA

Lehiaketa honen helburua Berrizko 2011ko San Pedro eta Santa Isabel jaietan emakumeen parte-hartzea islatzea da. Lehiaketa honekin, zera lortu nahi da: emakumeek tradizionalki bete dituzten roletaz gain beste adierazpen kulturaletan eta herriko jaietan non eta zertan parte-hartzen duten azaltzea, rol eta estereotipoak gaindituz eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna adierazi nahian. Oinarriak: Udaletxeko iragarki taulan eta WEB orrian.

FIESTAS SAN PEDRO Y SANTA ISABEL 2011: CONCURSO DE FOTOGRAFÍA, "PARTICIPACION DE LAS MUJERES EN FIESTAS"

El objeto de este concurso fotográfico es reflejar la participación de las mujeres en las fiestas locales de Berriz, San Pedro y Santa Isabel 2011. Desde el Área de Igualdad queremos que se plasme la participación social y cultural de las mujeres superando los roles y estereotipos marcados, visibilizando la Igualdad entre Mujeres y Hombres.

Bases: En el panel de anuncios del ayuntamiento y en la página WEB.

OPORRETAN IRAKURTZEKO LIBURUA HARTU MAILEGUAN
UDALEKO BERDINTASUN SAILEKO DOKUMENTAZIO ZENTROAN!!!

DOKUMENTAZIO ZENTROA GOMENDIOAK




BILLETE DE IDA Y VUELTA.
Gemma Lienas




EL AMOR NO ES COMO NOS LO CONTARON... NI COMO LO INVENTAMOS.
Clara Coria



FEMINISMO EN EL MUNDO GLOBAL.
Amelia Valcárcel.



IZARAPEKO AHOAKUAK, SEXUAREN GIDA ASKEA.
Gatzesarea.



LA REINA QUE DIO CALABAZAS AL CABALLERO DE LA ARMADURA OXIDADA.
Rosetta Corner.



MUJERES MALQUERIDAS.
Mariela Michelena.

Hurrengo ENGOXONAU, artikulatu interesgarri gehiago egongo dira eta 2011-2012 ikasturterako jakakuntza saioen eta azaroaren inguruan egingo den BELDUR BARIK lehiaketaren berri emango dugu!!! Eta badakizu, zalantzak, galderak, proposamenak jasotzeko edota zalantzak argitzeko, deitu edo bidali e-mail bat, eta gustura erantzungo dizugu.

En el próximo ENGOXONAU, habrá más artículos interesantes y os informaremos sobre los talleres de empoderamiento para el curso 2011-2012 y sobre el concurso BELDUR BARIK que se celebrará en el mes de noviembre.

Y, ya sabes, si tienes dudas, preguntas o propuestas, llama o manda un e-mail y te atenderemos gustosamente.

94 682 40 36
berdintasuna@berriz.org